

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

## **CHILLIDA LEKU MUSEOA ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA**

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2021ko uztailaren 22an, HAUSER & WIRTH SAN SEBASTIAN SL Chillida Lelu Museoarekin hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Hernaniko Udalak urtero 15.000 €-ko dirulaguntza emango dio HAUSER & WIRTH SAN SEBASTIAN SL Chillida Lelu Museolari, 2026ko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 1910.481.02.334.00/2026 (6733) Kopuru hori 2 epetan ordainduko da, %60 urte hasieran eta %40 memoria aurkeztutakoan.

2025eko dirulaguntzaren jardueraren memoria, garaiz eta dagokion epean aurkeztu du. Hitzarmenean jasotako Solstiziorako sarrerak helarazi dizkio Udalari eta udako zenbait jardueretan hernaniarrei prezio berezian eskaini zaie.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak martxoaren 05eko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela Gobernu batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

1. -2025eko dirulaguntza izendunaren zuriketa **onartzea**
2. -Hitzarmenaren indarraldia 2024ko abenduaren 31n bukatu zen, baina lau urtez luzagarria da. Beraz, **hitzarmenaren indarraldia luzatzea 2026ko urtarrilaren 1etik, 2028ko abenduaren 31 arte luzatzea.**
3. -2025eko dirulaguntza izendunaren %40 ordaintzea **6.000 €** .1910.481.02.334.00 /2025 partidatik
4. -2026ko dirulaguntza izendunaren %60 ordaintzea **9.000 €** 1910.481.02.334.00/2026 (6733) partidatik

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeke errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoexea  
Behin-behineko udal Idazkaria  
Hernanin 2026ko martxoaren 10ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoen bidez egiaztatu dezakezu.

